



Kaixo, lagunok:

Gogoratuko duzuenez, hil honetan José Luis de la Mata-ren heriotzaren VIII. urtemuga beteko da. Egun hori gurekin pasatzeko, Aresoko ERASONEA-DE LA MATAENEAn egingo den ekitaldian parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu: [otsailaren 23an, igandean, goizeko 11etan](#)

2013-2014ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeke Izargain-DelaMataren Eskolan garatzen ari garen [6. www Mintegiarekin](#)

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurtan berriro ere, antzerkira eramango gaitu disfrutatzen. Guztion artean [Tracy Letts](#) egilearen “[Abuztua](#)” antzezlanean garatzen diren famili-bilbe konplexuei (zeinek ez ditu ezagutzen!) bizitza emango diegu, gure gorputzarekin, ahotsarekin, dekoratuekin, musikarekin, harremanekin, mugimenduarekin... Beraz, gidoia eskuetan izango dugula, irakurketa bizidun eta bateratu honetan gurekin parte hartzera gonbidatuta zaudete.

Horrez gain, aurtan beste arrazoi bat dugu Jose Luis omentzeko, bere lanaren ekarriaren sustrai eta erreferente gisa ospatuz. Izan ere, [IZARGAIN-DelaMataren Eskolaren](#) eta [Erasonea-DELAMATAENEAn](#) [30. eta 25. urteurrenak](#) betetzen dira, hurrenez hurren. Gonbidatu nahi zaituztegu, beraz, urteurren pozgarri hauek gurekin ospatzera.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, bazkari bat egingo dugu. Bazkarira geratu nahi duzuenok, mesedez, esaguzue erantzuna e-mail honetara bidaliz [otsailaren 19a, asteazkena, baino lehen: \[ulumago@hotmail.com\]\(mailto:ulumago@hotmail.com\)](#).

Areson ikusi arte, har itzazue gure agurra eta besarkada.

Izargain-Areso
2014eko otsailaren 3a

Antzezlan

ABUZZTUA
(Osageko konderrial)

Tracy Letts

